



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 03.19

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hemeretziaren, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Tolosako udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzua kontratuaren adjudikazioa onartzea.
- 3.- Osasun eta Gizarte Zerbitzuen alorreko jarduerak finantzatzeko diru-laguntzen banaketa.
4. Oporrak Bakean programaren onarpena.
5. Nazioarteko Lankidetzaren Programako diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzako "B" atal"ean jasotakoak banatzea.
6. "Al-Quds-Jerusalen" Palestinaren Aldeko Elkarteari "Not to forget women Society" proiektuarentzako diru-laguntza ematea.
7. Sare elkarteari diru-laguntza ematea.
8. ZUTANI elkarteari diru-laguntza izenduna ordaintzea.
9. Belarmendi Mendiko Nekazaritza SLri Enplegune 2017-2018ko diru-laguntzen 1. ordainketa.
10. 2017ko urtean Aldaba auzoko



TOLOSAKO
UDALA

Intxur elkarteari auzoa
dinamizatzeko egindako
jarduerengatik diru-laguntza
ematea.

11. "12.4 San Frantzisko 32-34-36"
azpiesparruko exekuzio unitateko
kontzertazio juntaren
birpartzelazioaren haserako
onespenaren aurka aurkeztutako
alegazioei erantzutea eta proiektua
ez onartzea.
12. "San Frantzisko 32-34-36"
azpiesparrua urbanizatzeko
proiektuari hasierako onespena
ematea.
13. 82/2017 eta 7/2018 eta 8/2018
faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko martxoaren 12an egindako batzarraren akta aztertu ondoren, batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. TOLOSAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEO LAGUNTZA-ZERBITZUA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA.

Gaia mahaia gainean geratu da eta, asteazkenean, martxoaren 21ean egingo den batzarrean aztertuko da.

3.- OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ALORREKO JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA.

Gaia alkatearen eskumena denez, gai zerrendatik atera da.

4. OPORRAK BAKEAN PROGRAMAREN ONARPENA.

Gaia alkatearen eskumena denez, gai zerrendatik atera da.



TOLOSAKO
UDALA

5. NAZIOARTEKO LANKIDETZA PROGRAMAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAKO "B ATAL" EAN JASOTAKOAK BANATZEA.

Gaia alkatearen eskumena denez, gai zerrendatik atera da.

6. AL-QUDS-JERUSALEN" PALESTINAREN ALDEKO ELKARTEARI "NOT TO FORGET WOMEN SOCIETY" PROIEKTUARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

Gaia mahai gainean geratu da Ogasun batzordearen diktamena jaso ondoren Udalbatzari proposamena aurkezteko.

7. SARE ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

"Sare" elkarteak, presoei legez dagozkien eskubideei buruzko sentsibilizazio kanpainak egiten dituzte. Presoen gerturatzea eta gehien bat gaixotasun larriak ditzuten presoen kaleratzea eskatzen dute.

Tolosako udalari laguntza- eskera egin zion elkartearen ordezkariak. Kontuan hartuz talde honek presoen eskubideen alde lan egiten duela eta horren inguruan sentsibilizazioa lantzen dutela, Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Sare elkarteari 385 €ko laguntza ematea, preso dauden pertsonen eskubideen aldeko ekintzak aurera eramateko beharrezkoak izan diren balidabideak ordaintzeko (musika ekipoak, eszenatokiaren montaia, garraioa, eta abar.)

BIGARRENA.-Honen berri ematea Sare elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

8. ZUTANI ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA ORDAINTZEAK.

Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 13an, besteak beste, erabaki zuen "Asociación de Solidaridad y Ayuda Humanitaria ZUTANI-TOLOSA" elkarteari onartzea 7.000€ko diru-laguntza 2017. urtean ere, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak zuzeneko diru-laguntza emateko egindako txostenean oinarritua.

Erabaki zen, hain zuzen ere, hitzarmena sinatzearekin batera diru-laguntzaren %75 ordaintzea, eta gainerakoa, ohiko prozedurari jarraiki, emandako diru-laguntza hori behar bezala justifikatutakoan ordainduko zaiola.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatutako hitzarmena sinatu zen 2017ko otsailaren 2ko datarekin.

Beraz, adostutakoaren arabera, 2017ko abenduaren 29an, elkarteak honako dokumentu hauek aurkeztu zituen Tolosako Udalean:

- 2017. urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa
- Faktura originalak
- Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak

Gastu eta diru-sarreraren likidazioan, ordea, 2016.urteko enplegu planari zegozkion zenbait datu aurkeztu zituzten, eta informazio horrek aldatu egiten zuen 2017ko balantzea. Arduradunak 2018ko otsailaren 16ean aurkeztu du gastu eta diru-sarreraren likidazio definitiboa.

Behin dokumentazio hori guztia aztertuta, ondorengoa ondorioztatu dut:

Lehenik: Elkarteak errespetatu dituela hitzarmenean jasotako klausulak. Hala, esaterako, eman beharreko zerbitzua eskaini diete herritarrei, zerbitzua emateko udalak utzi dien lokalean mantentze lanak egin dituzte eta oinarritzko suministroak badituzte, hizkuntza irizpidean errespetatzen dituzte.

Era berean, hamabosgarren klausulan jasotzen diren konpromezu guztiak ere egoki bete ditu. Horrela, Tolosako udalak ematen dion laguntza erraz gainditzen dute aurkeztutako gastuen-zerrendan, zerbitzu osoagoa eskainiz herritarrei eta formazioeta informazio ekintzak nabarmenki indartuz 2017 urtean zehar. Horrekin bat, 2017ko diru-sarreraren berri ematen dutenean ikusten da bide osagarriak jorratu dituztela: dohaintzak, Pintxo-Tour eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak aipatuz.

Dena den, eta ikusirik indarrean dagoen diru-laguntzen prozedurak finantziazio zailtasunak sortarazten dizkietela, 2018ra begira erakunde pribatuetan diru-laguntzak edo laguntza osagarriak lortzen saiatzeko programazioa indartu beharko lukete. Bide hori jorratuz gero, ematen den zerbitzuaosatzen jarraitzeaz gain, administrazio publikoarenganako menpekotasuna gaindituko lukete, eta finantziazio dinamika askeagoa jorratu, batez ere urte amaieran-hasieran sortzen zaizkien zailtasun ekonomikoei aurre eginez.

Bigarrenik: Elkarteak 2017. urtean eduki dituen diru-sarreraren eta gastuen likidazioa aztertuta, baita fakturak ere, urte amaieran 1.448,99€ko defizita eduki duela.

Hitzarmenean jasotakoaren arabera, onartutako diru-laguntzaren %25a pendiente gelditu zen, sarrera eta gastuen balantzearen arabera, justifikatutako defizita ordaintzeko, beraz, gehienez ere 1.750€koa izan behar zuen bigarren ordainketa horrek, beti ere justifikatutako defizita gainditu gabe.

Goian aipatutakoaren arabera, kasu honetan, justifikatutako defizita 1448,99€koa izan da, aurrikusitako kopurua baina baxuagoa.

Hirugarrenik: Elkarteak 2017. urtean egitea aurreikusitako jarduerak burutu dituela, jarraian zerrendatzen direnak:

- Elikagaien banaketa
- Harrera zerbitzua
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa
- Beste batzuk



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 1.448,99€ ordaintzea "Asociación de Solidaridad y Ayuda Humanitaria ZUTANI-TOLOSA" elkarteari 0138.0016.11.0010725780 kontu korrante zenbakian.

BIGARRENA.- Diru-laguntza emateko 2017. urteko aurrekontuko 0500.481.01.23100 partida erabiltzea, zehazki, "Zutani" elkartearentzat kontraituta dagoen kopurutik.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitari eta Gizarte Politika departamentuari ematea.

9. BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA SLRI ENPLEGUNE 2017-2018KO DIRU-LAGUNTZEN 1. ORDAINKETA.

Batzarkideei proposamena aurkeztu zaie:

I.- 2017ko uztailaren 27an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak enplegu sustatzeko toki-ekintzetarako 2017ko ekitaldiko laguntza deialdiari buruzko ebazpena eman zuen (2017ko uztailaren 28ko EHAA 143.zkian argitaratua).

II.- 2017ko irailaren 12an, Tolosaldeko enplegu plana aurrera eramateko foroa elkartu zen, bertan eskaera onartu zen. Bertaratuak hauek izanda: Alkizako Udala, Alegiko Udala, Villabonako Udala, Asteasuako Udala, Hernialdeko Udala, Ibarako Udala, Altzoko Udala, Berastegiko Udala, Tolomendi, Sutargi, Katealgaia, Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udala.

III.- 2017ko irailaren 15ean, Tolosako Udalak, eskualdeko udalen izenean, Lanbideko bulegoetan egin zuen aipatutako eskaera, 302321 zkiarekin.

IV.- 2017ko azaroaren 2an, Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuko zuzendari nagusiaren bidez, Diru-Laguntza onartutzat eman zen, R/17-LPE-5G espediente zkiarekin. Eskaeran eginiko proposamena onarturik, Tolosako Udalari 281.839,37 € dagokio eta dirulaguntzaren banaketa azaltzen da:



TOLOSAKO
UDALA

	2017-12-13 LANBIDEREN EBAZPENA
TIPO 1	175.000,00 €
TIPO 2	98.839,37 €
TIPO 3	8.000,00 €
	281.839,37 €

V.- 2017ko abenduaren 15en, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian, Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzeko diru laguntza deialdia egin zen, 2. eta 3. motako lanpostu kopuruaren arabera

VI. Tolosako Udalak 155.011,65 € jaso zituen, dirulaguntzaren %55a, 2017ko abenduaren 21ean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2017-2018ko toki ekintzetarako laguntzen deialdiaren babesean.

VII.- 2017ko abenduaren 18an Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakian TIPO1 eko dirulaguntzaren banaketa onartu zen. Dirulaguntza, 2017ko uztailaren 28ko Lanbide-Enplegu Zerbitzuak EHAA 143.zkian argitaratutako baldintzetan, 9.artikuluak dioen bezala, eskatutako dokumentazio guztia onartutzat ematen denean lehenengo ordainketari egiten diogu.

VIII.- 2017ko abenduaren 26an Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakian TIPO 2ko eta 3ko dirulaguntzaren banaketa onartu zen. Dirulaguntza 2017ko abenduaren 15en, GAO 238.zkiko iragarkian, 8.puntuan dioen bezala, eskatutako dokumentazio guztia onartutzat ematen denean lehenengo ordainketari egiten diogu.

IX.- 2018ko otsailaren 9an, Gobernu Batzarrak, eskatutako dokumentazioa eta baldintzak betetzen zituzten tipo 1, 2 eta 3ko enpresa eta entitatei 1.ordainketa egitea erabaki zen. Hau da, ebazpenak dioen bezala dirulaguntzaren %55a ordaintzea.

- Tipo 1ko enpresen ordainketa, guztira 41.130,10 €.

- Tipo 2ko enpresen ordainketa, guztira 36.268,41 €.

- Tipo 3ko enpresei ordainketa, guztira 4.400 €.

X.- 2018ko otsailaren 15ean BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, SLk dokumentazio guztia entregatu zuen eta baldintzak betetzen ditu.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, SLri 1. ordainketa egitea, hau da, ebazpenak dioen bezala dirulaguntzaren %55a ordaintzea.

KONTRATA- TUTAKO PERTSONA	TIPO 2	AURREIKUSITA KO KOSTUA	DIRULAGUNTZA	1.ORDAINKETA (% 55)
	ENPRESA			
J.M.A.H	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L	12.694,14 €	6.000,00 €	3.300,00 €
F.J.A.O	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L	12.694,14 €	6.000,00 €	3.300,00 €
J.A.A.V	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L	12.694,14 €	6.000,00 €	3.300,00 €
			GUZTIRA	9.900,00 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzailetzari eta Enplegu departamentuari ematea.

10. 2017KO URTEAN ALDABA AUZOKO INTXUR ELKARTEARI AUZOA DINAMIZATZEKO EGINDAKO JARDUERENGATIK DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

AURREKARIAK

2014ko urriaren 31n Tolosako udalak eta Aldaba auzoko Intxur elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen honetan, beste gai batzuen artean, ondorengoa adostu zen:

LEHEN KLAUSULA. G puntua: Jardueren finantziaketa:

Gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jartzea, partida honen %50a urte hasieran ordaintzea, ekintzen memoria aurkezterakoan eta beste %50a urte bukaeran memoria orokorra aurkezterakoan.

Intxur auzo Elkarteak, 2017ko otsailaren 3an, diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu zuen:

- 2017ko ekintzak



TOLOSAKO
UDALA

- 2017ko ekintzen aurrekontuan
- Gizarte segurantzaren eta ogasuneko ziurtagiria

Gobernu Batzarrak, 2017ko otsailaren 13an, Intxur elkarteari 6.000 euroko diru-laguntza ematea onartu zuen gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako eta diru-laguntzaren %50 aurreratzea.

Intxur auzo Elkartea, 2017ko abenduaren 13an, diru-laguntzaren likidazioa aurkeztu du eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa
- Fakturak
- Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak

TXOSTENA

Aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, hitzarmenean ezartzen diren bete beharrak bete direla ondorioztatzen da.

- Urteko memorian jarritakoa bete da.
- Fakturak eta likidazioa aurkezten da.
- Gastatutakoa dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen du.

Kontu-hartzaileak aipatzen du nahiz eta diru-zuriketan faktura batzuk egon, gastu guztiak ez daudela justifikatuta Legeak esaten duen moduan: kasu batzutan albaranak daude, beste batzutan hornitzailea ez dago ondo zehaztuta, BEZa ez dago jarrita dokumentu guztietan, etab.

Behin eztabaidatuta erabakitzen da nahiz eta hori horrela izanda, jarduerak egin direla eta proposatzen da egoera honetan berriro ez egoteko, elkartearekin bilera bat egitea non azalduko den diru-zuriketa nola egin behar den.

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.- Intxur Auzo Elkarteari 2017ko dirulaguntza bere osotasunean ordaintzeko falta den % 50a ordaintzea 3.000€.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri kontu-hartzailletza eta Ingurumen sailari ematea.

11. "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36" AZPIESPARRUKO EXEKUZIO UNITATEKO KONTZERTAZIO JUNTAREN BIRPARTZELAZIOAREN HASERAKO ONESPENAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEA ETA PROIEKTUA EZ ONARTZEA.

Batzarkideek ondoko proposamena aztertu dute:

Hirigintzako Buruak eta Hirigintzako Letratuak ondoengo txostena egin dute izenburuan aipatutako gaiari buruz.

1.- AURREKARIAK.

1.- Tolosako "12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Kontzertazio Batzordeak", 2017ko urriaren 18an, hasierako onarpena eman zion unitateko birpartzelazio proiektuari.

Proiektua jendaurrean jarri zen Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean 2017ko urriaren 26an argitaratuta, eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian egun berean.

2.- Jendaurreko epean hiru alegazio sartu dira Udal Erregistroan:

- Jose Angel Arandia: zalantzan jartzen du birpartzelazio proiektuaren ikerketa ekonomikoa eta eskatzen du berria egitea.

- Juana Arbillaga Sasiasin eta Maria Paz Arbillaga Sasiain: zalantzan jartzen dute beraien aparkaleku baten balorazioa eta eskatzen dute aparkalekuaren balioa aldatzea.

- Maria Eugenia Muñagorri Azurmendik ondorengo alegazioak egiten ditu:

- 1.- Exekuzio unitatearen ordenazio xehatua aldatu behar da, Hirigintzako Estandarren Dekretura egokitzeke.

- 2.- Birpartzelazio proiektuak akatsak ditu hainbat etxebizitzaren eta lokalen azaleran.

- 3.-Zalantzan jartzen du interesatuaren etxearen balorazioa.

- 4.- Birpartzelazio proiektuak ez du jasotzen bere etxearen alokairua eta alokairuaren titularraren birkokapen eskubidea.

Eta ondorioz eskatzen du:

Birpartzelazio proiektuaren espedientea gelditzea "San Frantzisko 32-34-36" azpi-eremuko ordenazio xehatua egokitu arte 2012ko uztailaren 3ko Hirigintza Estandarren Dekretura.

Birpartzelazio proiektua egokitzea, elementu guztien azalerak modu homogeneizatu batean zehazteko.

Birpartzelazio proiektua egokitzea, falta diren elementuak sartuz eta etxearen alokairuaren birkokapen eskubidea onartuz.

Azkenik, etxearen balorazioa 137.153,00 eurokoa izatea, balore katastralarekin bat etorritz.

Uertu behar da, lehenengo alegazioa onartuz gero, birpartzelazioa indar gabe geldituko litzatekeela eta, ondorioz, beste alegazio guztiak modu subsidiarioan egin dituela Muñagorri andreak.

Gauza bera gertatuko litzateke Jose Angel Arandiak egindako alegazioa onartuko balitz, izan ere hori onartuz gero, birpartzelazioa bertan behera geldituko litzateke, aldaketak ezingo liratekeelako onartu berriro ere, Kontzertazio Batzordeak proiektuari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jarri gabe.

3.- Kontzertazio Batzordeak bere txosten teknikoa aurkeztu du alegazioei erantzunez. Honakoa dio txostenak:

1.- Maria Eugenia Muñagorriren idatziari erantzuna.

Esaten du ez dela derrigorrezkoa ordenazioa xehatua egokitzea 123/2012 Dekretura, ordenazioak betetzen dituelako Dekretuan ezarritako baldintzak eta ezin direnak bete dirutan ordaindu beharko direlako.

Akatsen zuzenketa.- Alegazioa onartzen dute eta behin betiko proiektuak jasoko ditu azalera homogeneizatuak, irizpide berak erabiliz.

Interesatuaren etxebizitzaren baloreari buruz, azaltzen dute balorea ondo dagoela eta balore katastrala ezin dela gutxienekotzat hartu balorea zehazterakoan.

Alokairuari buruz, esaten dute ez duela inork egiaztatu alokairu kontratu bat dagoenik, ez dokumentalki, ez bestelako modu batean.

2.- Jose Angel Arandiaren idatzia.

Onartu egiten dute alegazioa eta azaltzen dute behin betiko onarpena jasoko duen birpartzelazio proiektuak eguneratuko dituela salmenta prezioak eta, ondorioz, ikerketa ekonomiko berria aurkeztuko dutela.



TOLOSAKO
UDALA

3.- Juana Arbillaga Sasiain eta Maria Paz Arbillaga Sasiain.

Ez dute onartzen alegazioa, baina, hala ere, esaten dute behin betiko birpartzelazio proiektuan egokitu egingo direla aparkalekuen salmenta prezioak.

4.- 2018ko otsailaren 5eko dataz Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Juntaren izenean eta ordezkaritzan, aipatutako interesatuek aurkeztutako alegazioei erantzuten dien eta Josu Ferro Uriguen abokatuak sinatzen duen idatziari sarrera eman dio.

2018ko otsailaren 28an berriz, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Juntaren izenean birpartzelazio proiektu zuzendua aurkeztu du behin betiko onarpenerako.

2.- OINARRI JURIDIKOAK.

2.1. BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK.

Esan beharra dago Batzordeak onartu egiten duela Jose Angel Arandiak egindako alegazioa eta, ondorioz, horrek indar gabe uzten duela egun onartuta dagoen birpartzelazio proiektua.

Horren ondorioz, birpartzelazio berria ikerketa ekonomiko berri batean oinarrituko da, eta, gero arrazoituko den modura, tekniko honen ustez, aldaketa hori funtsezkoa da eta berriro jarri beharko da jendaurrean proiektua.

Ondorioz, ezingo zaio behin betiko onarpena eman aurkeztuko den birpartzelazioari, non aldatzen den birpartzelazioaren funtsezko oinarrietako bat, berriz hasierako jendaurrean jarri gabe.

Beraz, une honetan, beste alegazio guztiei, bati izan ezik, ez zaie erantzun behar, tekniko honen ustez birpartzelazio proiektu osoa balio gabe gelditzen delako.

2.2.- PLANEAMENDUA EGOKITU BEHARRA.

Hala ere, badago tekniko honen ustez alegazio bat erantzun behar dena, izan ere, nahiz eta Batzordeak ez onartu, eragiten dio, ez bakarrik birpartzelazio honi, baizik beste antzeko hiri-lur finkatugabeen dauden exekuzio unitateen ordenazio xehatuari.

Maria Eugenia Muñagorri Azurmendiren ustez, exekuzio unitateko ordenazio xehatua egokitu behar da 123/2012, Hirigintza Estandarrei buruzko Dekretura.

Arrazonamendua ondorengoa da: 123/2012ko Dekretuaren Lehenengo Xedapen iragankorraren arabera, lurzoru urbanizatu finkatugabeen jarduketa integratuan exekutatzen diren unitateak Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako estandarretara egokitu behar dira. Ondorioz, ezin da birpartzelazioarekin jarraitu ordenazio xehatua egokitu gabe.



TOLOSAKO
UDALA

Kontzertazio Batzordearen ustez, Dekretuak ezartzen duen beharra sortzeko, aurrez ordenazio xehatua ez da egokituta egon behar, eta egokituta izanez gero, ez litzateke ordenazio xehatua aldatu beharko.

Gaia azter dezagun:

1.- Lurzoru Legearen 79. artikulua dio, lehenengo paragrafoan, Erregelamendu bidez zehaztuko direla hiri-lurzoru finkatugabeen zenbat lursail gorde beharko diren tokiko sistemen estandarrak betetzeko.

Beraz, Lurzoru Legeak ez du finkatzen lurzoru finkatugabeen inolako estandarrik.

2.- 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzean premiazko neurriak hartzen dituenak, arautzen ditu hiri-lurzoru finkatugabeen ezarri behar diren tokiko sistemen estandarrak.

Horrela dio 17. artikulua:

– Toki-zuzkiduren estandarrak. Finkatu gabeko hiri-lurzorua.

1.– Finkatu gabeko hiri-lurzoruko eremuen antolamendu xehatuak, erabilera nagusia bizitegi-erabilera denean eta jardun integratuen bidez garatzea aurreikusten denean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 79.2 artikuluan ezarritako lursail-erreserbak ezarri beharko ditu gutxienez toki-zuzkiduretarako

Bestalde, Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak honela dio

Toki-zuzkiduren estandarren aplikazioa finkatu gabeko hiri-lurzoruan. Finkatu gabeko hiri-lurzoruan aplikatu beharreko, jardun integratuen bidez garatu beharreko eta Dekretu honen 17. artikuluan aurreikusitako toki-zuzkiduren estandarrak Dekretu hau indarrean jartzean hasierako onarpenik ez duten antolamendu xehatuko plan guztiei aplikatuko zaizkie.

Beraz, Dekretu hau indarrean jarri zenetik, 2008ko ekainaren 24an, hasierako onarpenik ez duten antolamendu xehatuko plan guztiei aplikatu zaie.

Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorrak azpi-eremu honetako antolamendu xehatua ezartzen du eta ez du Plan Berezi batera bideratzen antolamendu xehatua. Tolosako Plan Orokorrak 2007ko maiatzaren 8an jaso zuen hasierako onespina eta, ondorioz, Plan berak ordenazio xehatua ezartzen duen finkatu gabeko hiri-lurzoru guztietan ez da aplikagarria aipatutako Dekretua.

3. 2012. urtean argitaratzen da 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrak arautzen dituenak.

Dekretuaren 6. artikuluan ezartzen ditu finkatu gabeko hiri-lurzoruan ezarri beharreko estandarrak.

Eta 7. artikuluan hiri-lurzoru finkatugabeen tokiko sistemen sareko zuzkiduretarako eta ekipamenduetarako estandarrak betetzeko ezintasun osoa edo partziala dagoenean lekualdatzea edo konpentsatzeko aukera ematen du.



TOLOSAKO
UDALA

Gainera, lurzoru horiek eskuratzea eta Udal Administrazioari ematea ezinezkoa izanez gero, azalera horiei dagokien balio ekonomikoa kalkulatu eta diru-sarrera egingo dela adierazten du.

Hau da, lehenengo beharra da lurak udalari lagatzea estandarrak betetzeko, baina lur horiek eskuratzea ezinezkoa bada, unitatean ez dagoelako nahiko lurrik eta, lekualdatzea ezinezkoa delako, lur horien balorazioa egiteko eta dirutan ordaintzeko aukera ematen du.

Dekretu honek indargabetu egiten ditu 105/2008 Dekretuan, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30ekoan, estandarrei buruzko artikulua.

Estandarrei buruzko Dekretu honen aplikazioari buruz bi galdera erantzun behar dira:

1.- Noiztik dagoen indarrean.

Dekretuaren lehenengo Xedapen Iragankorrak, honela dio

Lehenengoa.— Hiri-lurzoru finkatugabeari tokiko zuzkiduren estandarrak aplikatzea.

Dekretu honen 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki, hiri-lurzoru finkatugabearen eraikigarritasun haztatua gehitzean eta jarduketa integratuen bidez kudeatu beharreko hiri-lurzoru finkatugabearen tokiko zuzkiduren estandarrak arauari egokitu behar zaizkio, antolamendu xehatuaren aldaketaren bidez.

Dekretua literalki interpretatuz gero Dekretu horretan arautzen diren hiri-lurzoru finkatugabeko estandarrak ezinbestean ezarri beharko liratezke exekutatu gabe dauden lurzoru finkatugabeetan. Eta gainera, araua edo planeamendua egokitu beharko litzateke antolamendu xehatuaren bidez.

Eta esaten dugu testualki interpretatu behar dela, izan ere, 105/2008 Dekretuak ezarritakoari jarraiki bertan jasotako estandarrak ez zitzaizkien aplikagarri Dekretua indarrean jarri zenean ordenazioa xehatua zuten lurrei eta, aldiz, 4 urte geroago, Estandarrei buruzko Dekretuak ezartzen du dekretu hori indarrean jarri aurreko edozein ordenazio xehatu egokitu beharko dela Dekretura.

Ez da arrazoizkoa 105/2008 Dekretuak ez ezartzea estandarrik berau indarrean sartu zenean ordenazio xehatua zuten lurrei eta lau urte geroago, Dekretu berri batek lur horiei estandarrak ezartzea, aurreko dekretuak ezarritakoaren aurka eta beraren aurreko hirigintza antolamenduen gaineko eraginarekin gainera.

2.- Ordenazio xehatua edozein kasutan egokitu behar den edo bakarrik egokitu behar den ordenazioak ez duenean betetzen estandarrei buruzko Dekretua.

Maria Eugenia Muñagorri Azurmendi andreak egindako alegazioaren arabera, kasu guztietan egokitu behar da ordenazio xehatua, izan ere alegazioan ez du inoiz esaten eremuak ez dituela betetzen araudiak ezarritako estandarrak, baizik eta ordenazioa automatikoki egokitu behar dela estandar horietara.



TOLOSAKO
UDALA

Tekniko honen ustez ez da ezinbestekoa ordenazio xehatua kasu guztietan egokitzea eta egokitu beharko da, soilik, indarrean dagoen ordenazio xehatuak ez duenean betetzen estandarrei buruzko Dekretua.

Izan ere, egokituta dagoena ez delako egokitu behar eta, ondorioz, ordenazio xehatua aldatu beharko da ez badator bat Dekretuarekin, baina, bestela, nahikoa izango da justifikatzea betetzen dituela araudian aurreikusitako estandarrek.

Zentzu horretan, egokia da Kontzertazio Batzordeak aipatzen duen epaia, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren 434/2017 epaia, hain zuen ere.

Horrela dio epaiak:

Alega el recurrente el incumplimiento del deber de adaptación a los estándares dotacionales locales previstos por el artículo 6 del Decreto 123/2012, de 3 de junio , de estándares urbanísticos, que impone la disposición transitoria primera del mismo.

Dicho precepto establece los estándares mínimos para reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos de la red de sistemas locales en suelo urbano no consolidado de actuaciones integradas y de dotación por incremento de edificabilidad, previendo la disposición transitoria primera de dicho decreto que dichos estándares se adaptarán a través de la modificación de la ordenación pormenorizada.

Como consecuencia de tales disposiciones existe el deber legal de adaptar el planeamiento vigente a la fecha de entrada en vigor de dicho decreto a los estándares previstos por su artículo 6, mediante la modificación de la ordenación pormenorizada.

Sin embargo, el recurrente no argumenta suficientemente la invalidez de la modificación impugnada como consecuencia de tales previsiones, ya que no se alega ni acredita que la ordenación modificada infrinja tales estándares, lo que no parece evidente teniendo en cuenta que sustancialmente reduce la edificabilidad residencial y aumenta los equipamientos públicos.

*Por lo demás, **el deber legal de adaptación habrá de cumplirse cuando concurra el presupuesto de hecho del incumplimiento de los estándares en la ordenación vigente a la fecha de entrada en vigor del decreto**, modificando la ordenación pormenorizada bien mediante la modificación del PGOU o los demás instrumentos de ordenación pormenorizada, planes especiales de ordenación urbana o planes parciales.*

Ikusten denez, soilik egokitu beharko da ordenazio xehatua estandarrek ez direnean betetzen.

2.3- ESTANDARREI BURUZKO JUSTIFIKAZIOA

Goazen aztertzeraz Estandarrei buruzko Dekretuan jasotako estandarrek betetzen diren edo ez exekuzio unitatean.



TOLOSAKO
UDALA

Hasiera batean esan behar da Dekretuaren 7.3 artikulua arabera hiri-lurzoru finkatugabea, bai jarduketa integratua edo integratuetan, bai zuzkidura-jarduketetan, zuzkiduren estandarrak kalkulatu direla **gehitutako eraikigarritasunaren arabera, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzen hartuta.**

Azpi-eremuaren fitxa urbanistikoak honela dio:

b) Régimen jurídico de la edificabilidad residencial:

- Edificabilidad residencial existente, a derribar y sustituir: 1.625 m²(t).
- Nueva edificabilidad residencial de promoción libre: 700 m²(t).
- Edificabilidad residencial total (promoción libre): 2.325 m²(t).

Gehitutako eraikigarritasuna 700 metro koadrokoa da eta, ondorioz, horien arabera kalkulatu beharko dira estandarrak.

- Kontzertazio Batzordearen ustez, berdegunetarako eta espazio libretarako estandarra betetzen da, izan ere, eremuak 1.573 m² ditu eta estandarra, % 15, 236,93 metrokoa izango litzateke eta azpi-esparruko f.10 eremu libreko gunek 396,79 m² ditu.

Hala ere, tekniko honen ustez, aukera dago beste interpretazio bat emateko. Hau da, % 15eko azalera izango litzateke % 100eko hazkundearentzat eta, beraz, gure kasuan, 700 metroko hazkundearentzat.

$$\% 15 \times 1.573 \text{ m}^2 \times (700/2.325) = 71,04 \text{ m}^2$$

Ordenazioak aurreikusten duen berdegunetarako eta espazio libreen azalerak soberan gainditzen du kopuru hori.

- Tokiko beste zuzkidurak direla eta, eremuak ez du ematen zuzkidura hori betetzeko tokirik, eta, ondorioz baloratu eta monetarizatu egin beharko da; horiek horrela kalkulatu dira:

$$5 \text{ ms} \times (700 \text{ mt}/25 \text{ mt}) = 140 \text{ m}^2$$

- Aparkalekuak, 0,35 aparkaleku plaza gorde beharko dira, gutxienez, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako:

$$0,35 \times (700/25) = 10 \text{ aparkaleku}$$

Udalak eskatzen duen aparkaleku estandarra handiagoa da eta sestra azpiko aparkaleku pribatiboan beteko da.

Ondorioz, esan dezakegu betetzen ez den estandar bakarra tokiko beste zuzkidurei dagokiena dela. Gauza da eremuan ez dagoela tokirik jartzeko, eta San Frantzisko 12 eremuan, ezin direla lekualdatu, San Frantzisko 20, 22 azpi-eremua izan ezik beste guztia hiri-lur finkatua delako, eta ez dagoelako tokirik lekualdatzeko.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, alferrikakoa izango litzateke ordenazio xedatua aldatzea, izan ere, ez dago beste aukerarik dirutan ordaintzea baino eta, horretarako, nahikoa izango litzateke birpartzelazio proiektuan jasotzea.

Hausnarketa bat

Gai honen inguruan hainbat ideia aipatu nahiko genituzke hausnarkleta moduan eta indarrean dagoen Plan Orokorrari begira.

San Frantzisko 30, 32, 34 eta hiriko beste hainbat azpi-eremu hiri-lur finkatugabeak, dituzten ezaugarri urbanistikoengatik, hiri-berroneratzeko jarduketa modura har daitezke. Aldiz, Euskal Herriko Lurzoru Legeak ezartzen dituen betebeharrak eta 2012ko Estandarrei buruzko Dekretuan jasotakoak, ez dute errazten hiri-berroneratzea, aitzitik, esango genuke oztopatu egiten dutela hiriko hainbat guneren hiri-berroneratzea.

Zentzu horretan, Estatuko Lurzoru eta Birgaitze Legearen testu bateratuan jasotako hainbat tresna erabili beharko lirateke gunek berroneratzeko. Lege horren arabera ez baita garrantzitsua luraren klasifikazioa eta kategorizazioa, baizik eta ordenazioak aurreikusten duen hiri-lurraren transformazio maila.

Hausnarketa sakon bat egin beharko litzateke gai honi buruz, izan ere, egungo Estatuko Lurzoru legeak eramaten gaitu hiri-lurraren berroneratzeko jardunak bultzatzera, eta egungo Euskal Herriko lurzoru legeak eta Estandar Dekretuak, askotan, ez dute asko laguntzen helburu hori lortzen.

